


BELATZ GORRIA

Joxerra Aihartza



FITXA TEKNIKOA

Belatz gorria

| | |
|----------|--------------------------|
| Espezia: | <i>Falco tinnunculus</i> |
| Familia: | falkonidoak |
| Ordena: | falkoniformeak |
| Klasea: | hegaztiak |

Grabitatearen eraginez oinak lurrari itsatsita eta arrastaka eramatera kondentuta gaude-noi, hegaztiak hegan ikusteak beti ere sekulako inbidia eta zirrara eragiten dizkigu. Baina sentimendu hau areagotu egiten da belatz gorriaren iharduna ikusteko aukerarik izanez gero: hegak ziztu bizian astinduz airean seko geldirik dagoela, lurrari so geratzen da ehizakiren baten bila, orekan. Hegal-muturren dardara azkarrak tinko mantentzen du gure buru gainean, lokarri ikustezin batetik zintzilik balego bezala, kolpez darda-

ra eten, irristadan beste gune batera mugitu, eta bertan berriro oreka lortzen duelarik. Espazioan irmo geratzen da, euliek udan egiten duten gisa berean. Newtonen legeaz ahaztuta, gure soin astunen ezintasunaz trufatu egiten dela dirudi.


Belatz gorria (*Falco tinnunculus*) falkoniformeen ordenean sailkatutako hegazti harrapari liraina du. Bere itxurari dagokionez, usoa baino txiki-xeagoa da; 31-38 cm-ko luzera eta 70-80 cm-ko hegal-zabalera besterik ez baitu. Gainerako belatzek bezala, belatz gorriak ere hegal zorrotzak eta isats luze dotorea ditu, hegan dabilenean aingura-itxura nabarmena hartzen duelarik. Aurpegian, begien azpian eta mokoaren alde bietara, "bibote" antzeko arrasto beltz nabarmenak ageri zaizkio.

Bestalde, eta izenak argi adierazten digunez, belatz gorria beltzez pintaritutako lumaje arre gorritaz jantzitako hegaztia du, hau batez ere

alde dortsalean nabari delarik. Gainerako harraparietan bezala, belatz gorriaren kasuan ere dimorfismo sexuala nabaria da oso, eta emeak de-xente handiagoak izan ohi dira arrak baino. Horrez gain, dimorfismo hau erraz antzematen da animalia-oren kolorazioan ere: emeek kolorazio dorsal homogenoa duten artean, arren kasuan bizkarra eta hegal gainak arre gorritzak eta beltzez pintarrituak dira, bai, baina burua eta isats gaina gris urdinskak izaten dituzte, hegal-muturrak beltzez jantziak dituztelarik.

Airean batetik bestera dabilela ere erraz ezagutzeko moduko hegaztia dugu belatz gorria. Izan ere, isats-muturrean apaingarri gisara daraman arrasto beltzaz gainera, bere hegan egiteko era ez oso azkarra, ez garaiegia, eta hegal-kolpe azkarrez osatua bereizgarri baita oso, gainerako falkonidoekin alderatzen badugu. Baina hegalak dardara bizian dituela orekan egoteko duen ahalmena da, noski, belatz gorriaren hegaldiaren ezaugarri bereizgarriena; berau baita gure inguruan bizi diren gainerako belatzengandik ongien bereizten duen abilezia. Beraz, belatz handia (*Falco peregrinus*) batez ere gainerako hegaztiak airean jo eta harrapatzeko moldatutako hegalari zorrotz,





azkar eta indartsua den artean, belatz gorria (*Falco tinnunculus*) bereziki lurtean dabilzan ehizaki txikiak harrapatuz bizi den espezialista aparta dugu, eta lanbide horretan askoz ere egokiagoa suertatzen zaio begirada zorrotzez (lurrari so) orekan egoteko ahalmena, bere lehengusu belatz handiaren abiadura bel-durgarria lortzea baino.

Normalean bikotea edota talde familiarretan bizi den harrapari txiki honen araldia eztei-hegaldiekin hasten da, martxoan edo apirilaren hasieran. Belatz gorriak ez du, ordea, habiarik egiten, eta beste hegaztiak aurreko urtean eraikitakoak, edota hartzulo edo harri-tarteak erabiltzen ditu txito berriak munduratzeko, horretarako beti ere haitz-labarrak, ezpondak, eta eliza edo bestelako giza eraikuntza zahar eta lasaiak erabiltzen dituelarik. Eta aldizka zuhaitzak ere aukera ditzake lan garrantzitsu honetarako.

Habialeku aproposetan, hots, giza presio txikia eta nahikoa segurtasuna eskaintzeaz gain, ehizerako egoki

Belatz gorria beltzez pintarratutako lumaje arre gorritzaz jantzitako hegaztia dugu, hau batez ere alde dortsalean nabari delarik.



diren eremuetatik hurbil daudenean, hainbat bikote bil daiteke bertan habia egitera, eta horrelakoetan ez da istilu handiegirik sortzen beren artean. Izan ere, belatz gorriak lurraldekoitasun latza ezartzen duen arren, hau beti ere erradio laburrekoa izaten da, eta berehala banatzen dute haitz-labarra, ezponda edo dena delakoa, bertan parekatzen diren bikoteek, handik aurrera bikoteen artean ezarritako mugak beren horretan mantentzea arren lana izango delarik.


Apirilean lau zapabost (aldika sei) arrautza erruten ditu emeak, eta hurrengo 27-30 egunetan berauek txitatzeaz arduratuko da, eta sasoi horretan arraren lana izango da biontzako bazka lortzea. Horregatik, hila-bete pasatxoak arrak jo eta ke aritu beharko du sagu, arratoi, lursagu, satitsu, sator, sugandila, musker, intsektu... eta abar ehizatzen. Txitoak jaio ondoren berriz, eta habian igaroko dituzten 27-32 eguneko epearen lehen astea gainditu orduko, ehizeko lanak arrak eta emeak burutzen dituzte. Eta horretan ari direla, ordurarteko ehizakiez gainera, beste txorien habietatik ohostutako txitok eta hegan ikasten ari diren inozoak ustiatzeari ekiten diote belatz gorriek, beren gaztetxo aseezinen gose-amorrua baretzeko alferrikako saioan. Zalantzarik gabe, sasoi honetan belatz gorrien bikoteak mendian diren mikrogaiztun, narrasti txiki, intsektu eta txori txikien kontsumitzaile aparteko bilakatzen zaizkigu, berauen populazioen ugalkortasunaren mugatzaile zorrotz suertatzen direlarik.

Belatz gorria ia nonahi aurki daitekeen espeziea dugu (bai Afrikan, bai Eurasia osoan) eta European banaketa zabala ageri du oso; Mediterraniotik hasi eta Eskandinaviaraino (ipar latitudeko 68°raino) ageri baita, ia lurralde osoan sedentarioa delarik (oso iparraldean izan ezik).

Euskal Herriari dagokionez, belatz gorria harrapari sedentarioa, oso hedatua eta ugaria da bertan, gaur egun, ia habitat-mota guztietan ageri delarik. Neguan, bestalde, bertako

populazio iraunkorra, Europako iparraldetik datozkigun migratzaileez osatu egiten da, hauek negutiar gisara batipat Bardeetan eta Ebro ibaiaren inguruetan geratzen direlarik. Gaur egun pestizidak arrisku latza dira belatz gorriarentzat, baina nolahi ere, espezie honen egoera de-

Belatz gorria ia nonahi aurki daitekeen espeziea dugu (bai Afrikan, bai Eurasia osoan) eta European banaketa zabala ageri du oso.



zente hobetu da isilpeko ehiza, habia-lapurretak, eta bestelako bidegabeko hainbat iharduera behera egiten hasi direnetik, eta konponbidea asko erraztu da belatz gorriaren oportunitate trofiko zabala eta habia-lekuekiko duen espezializazio-maila txikia direla medio. Horregatik, azken urteotan belatz gorria gero eta ugariago ari gara ikusten, bai hirietan eta bai gainerako ingurune humanizatuetan, hala nola Bilbo Handiko eremu industrialetan, zabortege inguruetan, harrobi zaharretan, eta abarretan.

